

**BERGARAKO UDALAREN ETA
MURUA BALZOLA FUNDAZIOAREN
ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN
ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE
BERGARA Y LA FUNDACIÓN
MURUA BALZOLA**

Bergaran, 2025eko azaroaren 25(e)an.

BILDURIK

- Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna (NAN: 72.581.398-E; ondorio hauetarako helbidea: San Martin Agirre plaza 1, Bergara (Gipuzkoa)); Bergarako Udaleko idazkaria den Xabin Juaristi Arrieta jaunak lagunduta.

Begarako Udalaren izenean eta ordezkaritza dihardu (entitatearen helbidea: San Martin Agirre plaza 1, Bergara (Gipuzkoa); IFZ: P2007900J).

Alkatea izanik dihardu, dagokion delegazioa baitu Udalbatzaren Osoko Bilkurak horrela erabakita 2025eko azaroaren 24 egunean egindako saioan; Alkate jaunak idazkari jaunaren oniritziarekin egun berean emandako ziurtagiriaren arabera.

- Beste aldetik, Ander Aizpurua Susperregi jauna (NAN: 44.168.858-A; ondorio hauetarako helbidea: Mikeletegi pasealekua 79, Donostia (Gipuzkoa)).

Murua Balzola Fundazioaren izenean eta ordezkaritza dihardu (entitateak jatorrizko helbide ofiziala Bergaran du: Errotalde - Santa Ana jauregia, Bergara, Gipuzkoa; baina helbide administratiboa eta jakinarazpen-ondorioetarako Donostian du: Mikeletegi pasealekua 79, Donostia, Gipuzkoa). Fundazioa Ignacio Murua Balzola jaunak eratu zuen 1951ko ekainaren 9an emandako testamentuaren bidez –Rafael Navarro Díaz Donostiako notarioaren aurrean jaso zen protokoloan–; Ignacio Murua Balzola, Valleko kondea eta Balzolako markesa zena, 1953ko irailaren 24an hil zen Bergaran. Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dago, GIP-11 zenbakiarekin, eta IFZ G20053518 du.

Fundazioaren ordezkaritza du Patronatuko presidentea delako eta egintza honetarako ahalmena bereziki emana duelako, izan ere erakundearen Patronatuak 2025eko azaroaren 20ko bileran erabaki baitzuen berariaz haren aldeko eskuordetzea ematea; betiere Natalia Garcia de Albizu Garate Fundazioko Patronatuko idazkariak egun berean eta Aizpurua jaunaren beraren oniritziarekin emandako ziurtagiriaren arabera.

Bertaratutako biek, hurrenez hurren ordezkutzen dituzten erakundeen izenean eta ordezkaritza, hitzarmen hau sinatzeko behar beste lege-gaitasun aitortzen diote elkarri, eta honako hau azaltzen dute:

AZALPENAK:



I. Murua Balzola Fundazioaren alderdi aipagarri batzuk

Lankidetzaren hitzarmen hau testuinguruan behar bezala kokatzeko, Murua Balzola Fundazioaren bilakaera historikoa markatu duten mugarri eta alderdi nagusietako batzuk nabarmendu nahi dira:

a) Fundazioaren bizitzako lehen hamarkadak

Murua Balzola Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da eta fundatzailearen borondatez sortu zen. Fundatzailea, Ignacio Murua Balzola jauna, Valleko kondea eta Balzolako markesa zen eta Bergaran hil zen 1953ko irailaren 24. Hasieratik, fundazioaren helburu altruista izan da Gipuzkoako eta Elorrioko baliabide ekonomikorik gabeko adin txikikoentzat eta gazteentzat maila eta espezialitate guztietako ikasketetarako eta prestakuntzarako laguntza ekonomikoak ematea. Helburu hori kontuan hartuta, garai hartan eskumena zuen Hezkuntza Ministerioak Fundazioa "ongintza partikularreko irakaskuntza-ongintzazko erakunde" izendatu zuen ("*Institución benéfico docente de Beneficencia Particular*").

Valleko kondeak, bere testamentuan, Fundazioaren administrazioa Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren esku utzi zuen; eta aurreikusita zegoen fundatzaileak bere testamentuan izendatu zituen patronatuko kideek Kutxarekin lankidetzan zuzendu eta zainduko zutela helburu horiek beteko zirela. Horregatik, fundatzailearen nahiak errespetatuz, hasierako patronatua hamar kidek osatu zuten, argi eta garbi bi kategoriatan banatuta:

- Alde batetik, sei kide fundatzailearen hurbileko pertsonak ziren; izan ere, estatutuen arabera, Patronatuko presidentearen kargua Valleko Kondearen titulua duenak bete behar zuen eta bete behar du.

Beste alde batetik, lau kidek profil teknikoagoa zuten, eta garai hartan abian zegoen Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak izendatzen zituen.

Patronatuko kideek jatorri eta izaera bikoitza izanik eta hortik eratorritako arazo naturalak alde batera utzita, egia da Fundazioaren lehen hamarkadetan Fundazioaren jarduerak era natural batean garatu zela, ezusteko handirik gabe, eta Fundazioaren baliabideak helburu altruista horretara atxiki ahal izan ziren.

b) 2003. urtean azkentze- eta likidazio-egintzek huts egin zuten

Urteak aurrera joan ahala, Patronatuko kideen jatorri eta izaera bikoitzak eta, batez ere, administrazio publikoek pixkanaka-pixkanaka hezkuntzaren arloko betebeharrak eta erantzukizunak ("propio" gisa) beren gain hartu izanak agerian utzi zuten krisi sakona Fundazioaren funtzionamenduan. Krisi hori hainbat mailatan planteatu zen, eta, horren ondorioz, 2003. urtean, Fundazioaren Patronatuak 2003ko apirilaren 8ko bilkuran erabaki

zuen Fundazioa azkentzea eta likidatzea, eta Fundazioaren ondarea Donostiako Elizbarrutiari edo Gotzaindegiari esleitu zitzaion. Hala erakusten dute honako hauek: (i) alde batetik, Fundazioa desegin eta likidatzeko eskritura, 2003ko abuztuaren 12an Diego-María Granados Asensio Donostiako notarioaren aurrean baimendutakoa (2.709 protokolo-zenbakia); eta (ii) lagapena onartzeko eskritura, Donostiako Elizbarrutiak emana, 2003ko irailaren 18an Donostiako José-Carlos Arnedo Ruiz notarioaren aurrean (2.975 protokolo-zenbakia).

Hala eta guztiz ere, 2003ko azkentze eta likidazio horrek huts egin zuen; izan ere, zegozkion erabakiekin batera inskribatzeko aurkeztu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak ez zuen azkentzeko arrazoia berretsi, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroak ere ez zituen inskribatu azkentze- eta likidazio-erabakiak (nahitaezkoa zen bezala), besteak beste, erabaki horiek hartu zituen Patronatuaren osieran eta inskripzioan segidako traktuko arazoak zeudelako. Horregatik guztiagatik agindu zen Fundazioak funtzionatzen jarraitu zezala.

c) 2017. urteko lur-jausiak eta Fundazioaren jarduera etetea

Huts egindako azkentze eta likidazio horren ondoren, Fundazioak urte batzuetan funtzionatzen jarraitu zuen. Hala ere, 2017ko urtarrilean, euri-jasen ondorioz, Bergarako Bolua auzoan lur-jausi handi bat gertatu zen eta Fundazioaren finketako bat –Fundazioa finka horren titularkide da, haren jabari osoaren % 50 du– haren eraginpean egon zen; izan ere, lur-jausiak finka hori kokatuta dagoen mendi-magalaren zati bati eragin zion eta etxebizitza batzuetan ere kalteak eragin zituen. Bergarako Udalak beharrezkotzat jo zuen hainbat jarduketa egitea mendi-magalaren egonkortasuna bermatzeko, eta eragindako jabeai (besteak beste, Murua Balzola Fundazioari) jakinarazi zizkien egiten ari zen jarduketak.

Gertakari horien ondoren, eta Fundazioaren balizko erantzukizun baten aurrean zuhuriziaz jokatz (gaur egun ez dago inolako erabakirik Fundazioari edozein erantzukizun mota egozteko, eta nolanahi ere erantzukizun hori partekatua izango litzateke), Fundazioak erabaki zuen ez zuela jarraituko konpromisoan jartzen bere finantza-ondarea eta, beraz, 2017. urtean zehar erabaki zuen hurrengo ekitaldietarako eten egingo zuela bekak eta laguntzak emateko jarduera. Etete hori oraindik ere indarrean dago, eta garbi ikusten da Fundazioaren finantza-ondarea ez delako ia aldatu, Fundazioaren gastu orokorreari aurre egiteko soilik erabili baita.

Orain arte, lur-jausia gertatzeko arriskua ezabatzeko, Udalak mendi-magala sendotzeko obrak esleitu edo egin ditu; gaur egun, hiru faseetatik bi gauzatu dira, eta hirugarrena egiten ari da.

d) Fundazioaren eta Bergarako Udalaren artean izandako harreman erraza

Aurretik adierazitakoa alde batera utzita, Bergarako Udalaren eta Murua Balzola Fundazioaren arteko harremana beti izan da erraza eta emankorra.

Horren adibide nagusia da Bergarako Udalak urteak daramatzala, dagokion Hitzarmena sinatu ondoren, Fundazioaren aktibo nagusia erabiltzen (Bergarako Errotalde edo Santa Ana jauregia, alegia), bertan instalatuta baitago duela urte batzuetatik hona udal liburutegia.

Teknikoki, hitzarmen hori 2020ko martxoaren 19an amaitu zen, eta harrezkero ez da berariaz berritu (besteak beste, ezin izan delako Patronatua osorik bildu, aurrerago ikusiko den bezala). Praktikan, ordea, isilbidezko berritze hori gertatu da, Udalak horretarako erabiltzen jarraitzen baitu, horrelako eraikin batek dakartzan mantentze-gastuak bere gain hartzearen truke.

e) Fundazioaren Patronatua erregularizatzeko arazoak

Patronatuko kideen jatorri eta izaera bikoitzaren ondoriozko arazoez eta fundatzaileak Patronatuaren lehendakaritzari buruz aurreikusitako xedapenek (estatutuen arabera, une bakoitzean Valleko Konde titulua zeukanaren esku geratu zen) gobernu-organoaren funtzionamenduan zailtasunak eragiten jarraitu dituzte, eta hori agerian utzi da ikustean Patronatuan ez dela Kondearen inguruko kide berririk sartzen joan, jatorrizkoak hil ondoren, eta beraz duela oso gutxira arte ezinezkoa izan da Fundazioaren Patronatuaren egoera erregularizatzea lortzea.

Hain zuzen ere, estatutu-xedapenen arabera, Patronatuko lehen lehendakaritza Pedro Murua Lezama-Leguizamon jaunari esleitu zitzaion (oinordekoa Valleko Konde tituluari). Hala ere, azken horren adinak, egoera pertsonalak eta "de facto"ko ekintza ezak (are gehiago, 2003an huts egin zuen azkentze-saiakeraren ondoren) zaildu egin die gainontzeko kideei oinarrizko erabaki batzuk hartzea, hala nola azken ekitaldietako urteko kontuak onartzea.

Pedro Murua Lezama-Leguizamon jauna hil eta hilabete gutxira (2019ko azaroan hil zen), noblezia-tituluari haren oinordekoa zen pertsona ere hil zen (Maria-Pilar Murua Lezama-Leguizamon andrea). Horren ondorioz, noblezia-titulu horren oinordekotza-gutuna Vicente Orbe Murua jaunaren alde eman zuen ministro-agindua BOEn argitaratu arte itxaron behar izan zen, azken horrekin bildu ahal izateko, egoera azaltzeko, Fundazioaren Patronatuko lehendakaritza eskaintzeko edo hark formalki uko egiteko (azkenean hori gertatu zen).

Eta, horren guztiaren ondoren, azkenean lortu da Fundazioaren Patronatuaren egoera Fundazioen Erregistroan erregularizatzeko erabakiak hartzea.

II. Murua Balzola Fundazioaren egungo ondare-egoera

Murua Balzola Fundazioaren bilakaera markatu duten mugarri nagusiak azaldu ondoren, lankidetzaz hitzarmen hau testuinguruan behar bezala kokatzeko helburu berarekin, Murua Balzola Fundazioaren egungo ondare-egoera erakusten duten alderdi hauek nabarmendu nahi dira:

- a) Murua Balzola Fundazioaren ordezkariak aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen den bezala (hitzarmen honi erantsitako banku-ziurtagiriak), gaur egun, fundazio hori honako finantza-aktibo hauen titularra da:
 1. 2025eko azaroaren 4an, KBren 1062790323 kontu korronteko saldoa, 196.496,82 eurokoa.
 2. KBren 4614599660 balore-kontuan gordailututako balore higigarriak, 587,70 eurokoak.
- b) Era berean, Murua Balzola Fundazioaren ordezkariak aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen den bezala (hitzarmen honi erantsitako erregistro-oharrak), gaur egun, fundazio hori da Bergarako udalerrian dauden finka hauen edo finken gaineko partaidetza banaezin hauen eskubideen titularra edo titularkidea:
 1. Bergarako Errotalde edo Santa Ana jauregi osoaren jabari osoa (erregistro-finka: 10.191; CRU 20015000356686; katastroko erreferentzia 4874003; balioetsita 783.523,92 eurotan).
 2. Bergarako Santa Ana ermita edo kapera dagoen partzela osoaren jabari osoa (erregistro-finka: 10.192; CRU 20015000356693; katastroko erreferentzia: 4874004; balioetsita 57.219,32 eurotan).
 3. Bergarako Santa Ana jauregiko jabetzen gainontzeko hiri-finkaren erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 8.279, CRU 20015000362359; balioetsita 2.095 eurotan).
 4. Bergarako Santa Ana baserri-errotaren landa-finkaren erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 1.601; CRU 20015000475318; balioetsita 44 eurotan).
 5. Bergarako Ugarte baserriaren jabetzakoak izandako lursailen landa-finkaren erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 1.606; CRU 20015000061528; balioetsita 1.361,20 eurotan).
 6. Bergarako "Echeazpia" barrutian lursailaren landa-finkaren erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 4.232; CRU 20015000381220; balioetsita 32 eurotan).

7. Bergarako "Echeburua" barrutian lursailaren landa-finkaren erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 4.233; CRU 20015000164632; balioetsita 73 eurotan).
 8. Bergarako "Madura-Solua o Vega de Amillaga" izeneko lursailaren landa-finkaren erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 4.234; CRU 20015000381237; balioetsita 83 eurotan).
 9. Bergarako Masterreka 7 etxearen jabetzakoak izan ziren "Machategui" 1 eta 2 etxaldean erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 1.612; CRU 20015000088433; balioetsita 3.081,5 eurotan).
- c) Gainera, Murua Balzola Fundazioa, Bergarako herritik kanpo, finka hauen titularra edo titularkidea da:
1. Elorrioko "Curutzebarri" barrutian lursailaren landa-finkaren erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 1.426; CRU 48009000791932; balioetsita 2.633 eurotan).
 2. Soraluzeko Irurei bailaran, Sagarra-torrea baserriaren eta jabetzakoak zituen lursailen gainontzeko landa-finkaren erdi banaezinaren jabari osoa (erregistro-finka: 784; CRU 20016000225071; balioetsita 732 eurotan).
 3. Zumaiako "Mancisidor-mayor o Lasalde y Lorecoa" baserriaren jabetzakotzat egun hartzen den lursail-zerrendaren landa-finkaren jabari osoa (erregistro-finka: 647; CRU 20001000851542; balioetsita 399 eurotan).

Testuinguru honetan, ohar hauek nabarmendu behar dira:

- Aipatutako finka guztiak edo finken gaineko partaidetza banaezin guztiak erregistro-kargarik gabe daude (salbu eta, kasuren batean, kasuan kasuko aldeko edo kontrako zortasunak).

Horiek guztiek ez dute errentamendurik; hala ere, lehenengoaren erabilera (Errotalde jauregia), adierazi den bezala, Bergarako Udalari lagata dago gaur egun.

1 eta 2 zenbakiekin identifikatutako finkei dagokienez (Errotalde jauregia eta Santa Ana ermita edo kapera), jabetza-erregistroan ez dago inolako mugarik inskribatuta; hala ere, bai Murua Balzola Fundazioak bai Bergarako Udalak badakite: (i) finka horien erdi banaezina hirugarren pertsonen doan laga ziotela doan Fundazioari, Donostiako José Areitio notarioak 1972ko urriaren 6an baimendutako eskrituraren arabera (protokolo-zenbakia: 1.106); eta (ii) eskritura horretan, finken erdi banaezina lagatzeko, baldintza hau (baldintza suntsiarazlea) ezarri zela: *Errotalde edo Santa Ana jauregi-etxea eta haren jabetzak Murua Balzola Fundazioaren estatutu-arauetan aurreikusitako helburuetarako soilik erabiltzea; horrenbestez, edonola ere, Murua-Balzola Fundazioaren egoitza zentral gisa obligazio horiek betetzea ezinezkoa balitz, lagatzaileak edo, hala balitz, haien kausadunak berriz bihurtuko lirateke jabe, eta inolako mugarik gabe.*

- 3tik 9ra arteko zenbakiekin identifikatutako finkei dagokienez (horien jabari-titulartasuna Fundazioari erdi banaezin batean bakarrik dagokio), bai Murua Balzola Fundazioak bai Bergarako Udalak badakite gainontzeko partaidetzak hirugarren pertsonen izenean daudela erregistratuta (bere garaian, Ignacio Murua Balzola fundatzailearen hurbilekoak edo onuradunak zirenak).
- 4tik 9ra arteko zenbakiekin identifikatutako finkei dagokienez (horien jabari-titulartasuna Fundazioari erdi banaezin batean bakarrik dagokio), ez Murua Balzola Fundazioak ez Bergarako Udalak ez dakite benetan existitzen diren ala ez, deskribapen erreala hori duten ala ez, Fundazioaren benetako titulartasunekoak diren edo hirugarrenei saldu zaizkien, etab.; izan ere, ez dago horien gainean igorritako Ondasun Higiezinaren Zergaren ordainagiririk. Ildo horretatik, aldeek "Teknilur Valoraciones SL" k 2013ko uztailaren egindako txostenera jotzen dute; txosten horretan ikusten baita zer nolako zailtasunak dauden deskribatutako zenbait jabetza eta finka aurkitzeko.

d) Gainontzekoan, Murua Balzola Fundazioaren ondare-egoera pasiborik ez egotetik ere ondorioztatzen da; izan ere, haren ordezkariak adierazitako adierazpenetatik ondorioztatzen denez, gaur egun:

- Berak dakiela, ez dago Murua Balzola Fundazioaren inolako pasibo edo zorrik.
- Berak dakiela, ez dago Murua Balzola Fundazioaren ondarea murriztu dezakeen mugarik edo erantzukizun kontingenterik, Hitzarmen honetako aurreko ataletan aipatutako salbuespenekin.

Murua Balzola Fundazioa ez da eta ez da izan hirugarrenen aurrean edozein betebeharr ekonomikoa (adibidez, lan-harremanak) bere gain hartzea ekar dezakeen edo bere ondarean eragin negatiboa izan dezakeen inolako harreman juridikoren titularra, bere aktiboen titulartasunaren berezkoak edo propioak direnak izan ezik.

Fundazioaren aktibo nagusia, hau da, Bergarako Errotalde edo Santa Ana jauregia, balio historikoa nabarmena duen eraikina da, baina eguneratze handia behar du (besteak beste, egitura egokitzea, irisgarritasuna, hobekuntzak oro har, etab.), eta Fundazioak ez ditu horretarako behar diren baliabide ekonomikoak.

III. Hitzarmen hau sinatzeko komenigarritasuna

Testuinguru osoa eta aurreko azalpenetan deskribatutako alderdi guztiak kontuan hartuta, Murua Balzola Fundazioaren Patronatuko egungo kideek uste dute Fundazioak ezin duela fundazioaren helburua bete, besteak beste bere baliabide ekonomikoak ia agortu direlako eta Hitzarmen honen Lehen Azalpenean aipatutako inguruabarrengatik; eta hori dela-eta, fundatzailearen borondatea betetzeko modurik onena fundazioa azkentzea eta likidatzea



Bergarako
Udala

da, eta, ondoren, Bergarako Udalari –interes orokorreko helburuak betetzen dituen erakunde publikoa den aldetik– Fundazioaren aktibo eta pasibo guztiak eskualdatzea, salbu eta aurreko II c) azalpenean deskribatutako hiru finkak; horrenbestez, Udalak aktiboak eskuratu ditzan eta pasiboetan oinordetza unibertsalaren bidez subrogatu dadin. Planteamendu hori azaldu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak eta Erregistroak oniritzia eman du.

Bestalde, Bergarako Udalak ere oniritzia eman dio planteamenduari, eta prest dago –hitzarmen honetan ezarritako mugekin– Murua Balzola Fundazioaren aktibo guztiak eskuratzeko –aurreko paragrafoan aurreikusitako salbuespenarekin– eta haren pasibo guztietan subrogatzeko –oinordetza unibertsalaren bidez–.

Azken finean, gaia bi aldeei interesatzen zaienez, egokitzen jo da aipatutako bi erakundeen lankidetzaren instrumentalizazioa eta horretarako Lankidetzaren Hitzarmen hau formalizazioa; eta berau honako klausula hauen arabera artikulatu nahi dute:

KLAUSULAK

Lehenena. - Xedea eta helburua

Hitzarmen honen xedea eta helburua da, Murua Balzola Fundazioak Bergarako Udalari aktibo eta pasibo guztiak eskualdatzeko eskualdaketa unibertsalari dagokionez, parte hartzen duten bi aldeetako bakoitzak bere gain hartzen dituen eskubide eta betebeharrak guztiak arautzea.

Ondare-eskualdaketa unibertsal hori Murua Balzola Fundazioa azkendu eta likidatu ondoren egingo da; izan ere, fundazioak hori erabaki du ezin duelako bere helburua bete. Hartzaile bakarra Bergarako Udala izango da eta, hura onartu ondoren, hitzarmen honetan ezarritako mugekin, Murua Balzola Fundazioaren aktibo guztiak eskuratuko ditu, eta pasibo guztietan subrogatuko da oinordetza unibertsalaren bidez. Era berean, iraungita geratuko da Murua Balzola Fundazioak luiziari dagokionez duen erantzukizuna.

Horretarako, Murua Balzola Fundazioak fundazioa azkentzeko erabakia hartu aurretik, fundazioak Kutxa Fundazioari eskualdatuko dizkio II, c) azalpenean aipatutako finkak.

Bigarrenena. - Ondorioen Data

Aldeek adostu dute Murua Balzola Fundazioaren aktibo eta pasibo guztien eskualdaketa unibertsalaren ondorioak atzeratu egingo direla Bergarako Udalak fundazioaren aktibo eta pasibo guztiak notario-eskritura publikoan onartu eta subrogatzen dituen unera arte (aurrerantzean, Ondorioen Data).

Hirugarrena. - Murua Balzola Fundazioaren betebeharrak

Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz, Murua Balzola Fundazioak betebeharrak hartzen ditu bere gain:

- a) Aktibo guztiak Ondorioen Datara arte kontserbatzea eta mantentzea, aktibo horiei gaur arte jasotakoaren antzeko tratamendua emanaz, aktibo horien balioa kaltetu edo gutxitu zezakeen edozein ekintzarik egin gabe.
- b) Gaur egun bere ondare aktiboa osatzen duten aktiboak ez erabiltzea ezta horiei kargarik ezartzea ere Ondorioen Datara arte. Salbuespenak: (i) finantza-aktiboak erabili ahal izango ditu Fundazioaren premia eta gastu arruntei erantzuteko, eta (ii) II, c) azalpenean deskribatutako finkak transmititu beharko ditu aldeztu aurretik. Beste edozein erabiltze-edo kargatze-egintzak Bergarako Udalaren baimena beharko du.
- c) Ondorioen Datara arte, ez hartzea bere gain fundazioaren ondarea arriskuan jar dezaketen zorrik edo pasiborik, salbu eta Bergarako Udalaren baimena badu.
- d) Ondorioen Datara arte, Bergarako Udalari puntualki jakinaraztea Fundazioaren ondarearen balioa kaltetu edo gutxitu dezakeen edo Hitzarmen honen helburua lortzea eragotzi edo zaildu dezakeen edozein gertakizun edo informazio.
- e) Indarrean dagoen legeriaren arabera, fundazioa azkentzeko eta likidatzeko barne-erabakiak hartzea, bai eta hitzarmen honen xedea lortzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren beste edozein akordio osagarri hartzea ere.
- f) Fundazioa azkentzeko eta likidatzeko eskritura notariala(k) ematerakoan bertaratzea, bere aktibo guztiak hitzarmen honetan ezarritako mugekin Bergarako Udalari eskualdatzeko, eta aldi berean Bergarako Udalak haren pasibo guztiak subrogatuko ditu oinordetza unibertsalaren bidez.
- g) Lortu beharreko Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren berrespenak edo baimenak eskatzea.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan egin beharreko inskripzioak egiteko eskatzea.
- i) Jabetza Erregistroan dagozkion inskripzioak egiteko eskatzea.
- j) Lankidetzat Hitzarmen honen inguruan egin nahi den edozein jakinarazpen Bergarako Udalarekin adostea, behar besteko aurrerapenarekin.
- k) Oro har, hitzarmen hau erabat betearazteko bere esku dauden eta beharrezkoak edo komenigarriak diren ekintza eta kudeaketa guztiak egitea.

- l) Zerga-aitorpen guztiak aurkeztea, eta indarrean dagoen araudiak fundazioari eskatzen dizkion zergak eta tasak likidatzea, berau azkendu arte.
- m) Fundazioari buruz eskuragarri dagoen dokumentazioaren kopia bat Bergarako Udalari ematea.

Laugarrena. - Bergarako Udalaren betebeharrak

Bestalde, hitzarmen hau sinatzearen ondorioz, Bergarako Udalak betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

- a) Ondorioen Datara arte, Murua Balzola Fundazioari puntualki jakinaraztea hitzarmen honen helburua lortzea eragotzi edo zaildu dezakeen edozein kontingentzia edo informazio.
- b) Beharrezkoak diren administrazio-prozedura guztiak garatzea eta administrazio-egintza guztiak egitea bai Murua Balzola Fundazioaren aktibo guztiak eskuratzeko, bai oinordetza unibertsalaren bidez pasibo guztietan subrogatzeko, betiere hitzarmen honetan ezarritako mugekin.
- c) Hitzarmen honetan ezarritako mugekin, Murua Balzola Fundazioaren aktibo guztiak eskuratzeko eta, aldi berean, haren pasibo guztietan oinordetza unibertsalaren bidez subrogatzeko beharrezkoak diren dokumentu eta eskritura notarialak ematerakoan bertaratzea.
- d) Hitzarmen honen xede diren aktiboak eskualdatzearen eta pasiboak subrogatzearen ondorioz sortzen diren gastuen (notaritzakoak, erregistrokoak, etab.) eta zergen ordainketa bere gain hartzea.
- e) Murua Balzola Fundazioa eta haren patrono, kudeatzaile eta/edo likidatzaileak salbuestea, eta berariaz uko egitea haien aurka edozein akzio egiteari, honako gertakizun hauetakoren edozeinekin zerikusia badu:

I. azalpeneko b) atalean aipatutako 1. eta 2. finen erdi zatiezinen doako lagapena egin zenean, 1972an itundutako baldintza suntsiarazlea egotearekin edo hori erabili ahal izatearekin;

I. azalpeneko b) atalean aipatuta, 2003an huts egin zuen azkentze eta likidatzearekin;

I. azalpeneko c) atalean aipatutako 2017ko lur-jausiak;

- II. azalpeneko b) atalean aipatutako 4.etik 12.era bitarteko finken existentzia, deskribapen edo titulartasun errealarari buruzko egungo ezjakintasuna zehatz-mehatz. Hala eta guztiz ere, bere gain hartzen dituen gastu eta zergen ordainketa, hala badagokio, mugatuta geratuko da Ondorioen Datan Fundaziotik eskuratzen dituen aktibo guztien baliora iritsi arte.
- f) Bergarako Errotalde jauregia edo Santa Ana etxea Gipuzkoan modu iraunkorrean onura publikoko eta ongintzako zereginetarako erabiltzeko konpromisoa hartzea.
- g) Murua Balzola Fundazioarekin adostea, behar besteko aurrerapenarekin, Lankidetzaren Hitzarmen honi buruz egiteko aurreikusten den edozein jakinarazpen.
- h) Oro har, hitzarmen hau erabat betearazteko bere esku dauden eta beharrezkoak edo komenigarriak diren ekintza eta kudeaketa guztiak egitea.

Bosgarrena. - Edozein arrazoi dela-eta, Fundazioen Babeslaritzak fundazioa azkentzeko baimenik emango ez balu, hitzarmen hau indarrrik gabe geratuko da.


Eta ados daudela eta adierazitako guztia onartzen dutela erakusteko, alderdiek dokumentu hau bi aletan sinatu dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean

Begarako Udala




Gorka Artola Alberdi jauna

Murua Balzola Fundazioa



Ander Aizpurua Susperregui jauna

Begarako Udaleko Idazkaria
Fede emateko, 128/2018 Errege Dekretuaren arabera (128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena).



Xabin Juaristi Arrieta jauna